**INGURUMENEKO TOKIKO FOROAREN BILERAREN AKTA**
**(14.03.12)**

INGURUMENEKO ZINEGOTZIA
KELTSE EIGUREN AND.

HIRIGINTZA ZINEGOTZIA
JOSEBA ARREGI JN.

INGURUMENEKO TEKNIKARIA
JOSU ATEKA JN.

FOROKO IDAZKARIA
ARANTZA CABEZA AND.

INGURUMENEKO AHOLKULARIA
JULEN REKONDO JN. (Ingurune)

BERTARATUAK:

CELIA MARAÑON AND. (Ekologistak Martxan).
CARLOS ARANA JN. (Sarekideko ordezkaria)

MAITE IBARBENGOECHEA AND. (Getxo Enpresako lehendakaria)
AMELIA ZORRILA AND. (Basozaleakeko ordezkaria)

DIMAS RAMOS JN. (Kirol elkarteen ordezkaria)

EDORTA DEL SER LORENTE JN. (Ibilbide ekologikoak eta ingurumen arloan ospe handia duen pertsona).
PEDRO BARRENETXEA JN. (Eskolako Agenda 21 eta Aixerrota Institutuko irakaslea).

Bilerara etorri ezin dutela adierazi dute NATIVIDAD MORALES andreak (Gizatiar Elkarteko ordezkaria), KOLDO NABASKUES jaunak (Urkoa Kontsumitzaileen Elkartea), eta SANTI BARRADO jaunak (Bizkel Elkarteko ordezkaria).

Getxon, 2014ko martxoaren 12an. Egun horren arratsaldeko zazpietan Getxoko Ingurumeneko Tokiko Foroa bildu zen, eta goian aipatutakoak bertaratu ziren.

**GAI ZERRENDA**

Gai-zerrenda jorratzen hasi aurretik, Julen Rekondo jaunak adierazi du HAPOko lanei buruzko argibideak emateko bilera honetan, aurrean egongo direla Anton Agirregoitia jauna, HAPO

**ACTA DE LA REUNIÓN DEL FORO LOCAL DE MEDIO AMBIENTE**
**(12.03.14)**

CONCEJALA DE MEDIO AMBIENTE
Dª. KELTSE EIGUREN

CONCEJAL DE URBANISMO
D. JOSEBA ARREGI

TECNICO DE MEDIO AMBIENTE:
D. JOSU ATEKA

SECRETARIA DEL FORO
Dª. ARANTZA CABEZA.

CONSULTOR MEDIOAMBIENTAL:
D. JULEN REKONDO (Ingurune)

ASISTENTES:

Dª. CELIA MARAÑON (Ekologistak Martxan).
D. CARLOS ARANA (Representante de Sarekide)
Dª MAITE IBARBENGOECHEA ((Presidenta de Getxo Enpresa).
Dª AMELIA ZORRILLA (Representante de Basozaleak).
D. DIMAS RAMOS (Representante de Asociaciones Deportivas)
D. EDORTA DEL SER LORENTE (Itinerarios Ecológicos y persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente.
D. PEDRO BARRENETXEA (Agenda Escolar 21 y profesor del Instituto Aixerrota).

Excusan su no asistencia, Dª NATIVIDAD MORALES (Representante de la Asociación Gizatiar), D. KOLDO NABASKUES (Asociación de Consumidores Urkoa) y D. SANTI BARRADO (Representante de Asociación Bizkel).

En Getxo, a 12 de marzo de 2014. Se reunió a las diecinueve horas de este día el Foro Local de Medio Ambiente de Getxo, con asistencia de los capitulares reseñados.

**ORDEN DEL DÍA**

Antes de iniciar propiamente el orden del día, D. Julen Rekondo informa que en la reunión de hoy para informar de la marcha de los trabajos del PGOU van a estar presentes D.

idatzi duen taldearen arduraduna (ezin izan zuen HAPOri buruzko Foroaren lehen bilerara etorri), Argiñe Encinas Cano andrea, HAPOren bulegoko arkitektoa (aurreko bilera batetik ezaguna da), eta Joseba Arregi jauna, Hirigintza zinegotzia.

Anton Agirregoitia, responsable del Equipo Redactor del PGOU y que no pudo venir a la primera reunión del Foro sobre el PGOU, la arquitecta de la Oficina del PGOU, Dª Argiñe Encinas Cano, a la que ya se le conoce de una anterior reunión, que acuden, junto al concejal de Urbanismo, D. Joseba Arregi.

**1. HAPOren jarraipena (2. bilera).**

**1. Seguimiento del PGOU (2ª reunión).**

Bileraren hasieran, Argiñe Encinas andreak, Anton Agirregoitia jaunaren lankidetza eta babesarekin, planteatu du Getxo udalerriko beharrizanen eta etxebizitza eskaintzaren analisia eta kalkulua. Bi metodo kontuan hartuta egin da: LAG eta PTPkoak. Puntu hau amaitzeko, zenbait ondorio atera ditu.

Comienza la reunión planteando D Argiñe Encinas, con la colaboración y apoyo de D. Anton Agirregoitia, el análisis y cálculo de necesidades y oferta residencial de vivienda en Getxo que se ha hecho teniendo en cuenta dos métodos: el de las DOT y del PTP, finalizando este punto con una serie de conclusiones.

Lehenengo eta behin, Argiñe Encinas andreak, bertaratuei eskema bat eman die, eta horretan azalpeneko puntu nagusiak jasota daude. Hizlariak bi metodoak eta bien indarraldia aipatu ditu. Bere esanetan, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) 1997an onetsi ziren, beharrizanak eta etxebizitza eskaintza kalkulatzeko metodoarekin. Bilbo metropolitanoko PTP onetsi zenean, metodo berria planteatu zen, 1997ko LAGekoa ordeztu zuena. Hain zuzen ere, horixe da indarrean dagoen metodoa, area funtzional honetan garatzen den udal plangintza guztietarako beharrezkoa dena.
Duela urtebete LAGen aldaketa onetsi zen, eta horretan metodo berria proposatzen zen. Aldaketa hori edo behintzat kalkulu-metodoa onetsiko balitz, PTPrena ordeztuko luke.

En primer lugar, Dª Argiñe Encinas, previa entrega a los asistentes de un esquema, en el que se recogen los puntos principales de su exposición, se refiere a los dos métodos y la vigencia de los dos. Viene a decir que, las Directrices de Ordenación del Territorio (DOT) se aprueban en 1997 con un método de cálculo para las necesidades y oferta residencial. Cuando se aprueba el PTP de Bilbao Metropolitano se plantea un nuevo método que sustituye al de las DOT de 1997. Este es el método vigente y obligatorio para todo el planeamiento municipal que se desarrolle en esta área funcional.
Hace un año se aprobó inicialmente la modificación de las DOT que proponía un nuevo método. Si esta modificación se aprobara o tan solo su método de cálculo, este sustituiría al del PTP.

Argiñe Encinas andreak planteatu du beharrizanak eta etxebizitza eskaintza aztertzeko bi metodoak erabiliko direla (eta aldagairen bat), zalantzan jartzeko eta emaitzak konparatzeko.

Dª Argiñe Encinas plantea que se van a utilizar ambos métodos (y alguna variante), para poderlos cuestionar y comparar sus resultados, para el análisis de las necesidades y oferta residencial de vivienda.

Bestalde, Argiñe Encinas andreak metodoetan eragina duten faktoreak adierazi ditu.
Lehen faktorea eta kalkulurako lehen erabakia: **azterlanaren ikusmuga**. HAPOren behin betiko onespena aurreikusten den unetik + planaren indarraldiko 8 urte. Behin betiko onespena 2015. urtearen amaieran izango dela aurreikusten da.
Bigarren faktorea eta kalkulurako bigarren erabakia: **biztanleriaren bilakaera**. PTPko metodoak udalerriaren esku uzten du erabakitzea zein izango den biztanleriaren bilakaera. Azterlan honetan, bilakaerarako 7 hipotesi planteatzen dira. LAGen metodoak planteatzen duen bilakaera ez dago oso gaurkotuta eta, beraz, beste aldagai

Por otra parte, Dª Argiñe Encinas señala los factores que influyen en los métodos.
Primer Factor y primera decisión para el cálculo: **es el Horizonte del estudio**. Desde donde se prevea la aprobación definitiva del PGOU + 8 años de vigencia del plan. Se prevé la aprobación definitiva para finales de 2015.
Segundo factor y segunda decisión para el cálculo: **Evolución de la población**. El método del PTP deja a decisión municipal cual va a ser la evolución de la población. En este estudio se plantean 7 hipótesis de evolución. El método de las DOT impone una evolución que por estar un poco desactualizada se va

batzuekin batera aztertuko da.

Kalkulurako hirugarren faktorea: **familiaren batez besteko neurria (FBN). Etxebizitza bat okupatzen duten pertsonen batez bestekoa beherantz ari da urtez urte.** FBNren jaitsieraren ondorioa da biztanleria berberarentzat, urte batetik bestera, etxebizitza gehiago behar direla, etxebizitza bakoitzean gero eta pertsona gutxiago bizi baikara.

**Ondorioak**:

Ulertu egiten da, eta horrela landu da, biztanleriaren datuak udal erroldatik hartu beharko liratekeela, eta beste iturri batzuk baztertu beharko liratekeela, hala nola EIN eta EUSTAT, aldagaien kopurua sinplifikatzeko.

LAGen aldaketak planteatzen duen metodoa, 1991-2006 analisi aldiarekin, ez dago gaurkotuta, eta gutxienez 2006-2011 alditik ateratzen den bilakaerarekin ordeztu beharko litzateke.

Etxebizitza eskaintzara iristeko, lehenengo eta behin, HAPOn jaso behar den biztanleriaren bilakaerari buruz gogoeta egin beharko litzateke; izan ere, frogatuta dagoen moduan, bi metodoek aukera esparru zabala sortzen dute.

Bilakaera horri buruz erabakitzeko, besteak beste, kontuan hartu beharko litzateke azken 17 urteetan udalerriko batez besteko adina 37,21 urtetik 43,94 urtera igo dela. Biztanleriaren % 20 65 urtetik gorakoa da; 2000 eta 2012. urteen bitartean, 25 eta 35 urte bitarteko 16.958 gaztek emigratu dute, eta beste leku batzuetatik 3.512 iritsi dira (migrazio saldoa negatiboa da: 13.446 biztanle); eta Barrika, Berango, Erandio, Gorliz, Leioa, Plentzia, Sopela eta Urdulizera 5.442 biztanle joan dira (ia-ia kopuru osoaren heren bat).

Lehen azalpen horretatik galdera asko sortzen dira. Celina Marañon andreak planteatzen du alokairuko etxebizitzak alokatzeko beharra dagoela. Argiñe Encinas andreak erantzun dio, bere ustez, HAPOk ez duela eginbehar hori. Eta planteatu dena etxebizitza beharrizanen zenbait hipotesi dira, bi metodoren eta biztanleriaren bilakaeraren arabera; hala ere, gero Lantalden landu dituzten alternatibei buruzko argibideak emango ditu.

Etxebizitza hutsei buruz ere galdetu da. 2013an 2.169 etxebizitza zenbatuta zeuden, gehi 1.341 bigarren etxebizitza.

Ondoren, Argiñe Encinas andreak Lantalden aztertutako edo landutako alternatiben berri eman du. Akta honetan ez dira horiek sakondu, lantalde desberdinek landutako fitxak igorrita baitaude.

estudiar junto con otras variantes.

Tercer factor para el cálculo: **Tamaño medio familiar (TMF). La media de las personas que ocupan una vivienda, disminuye año a año**. La consecuencia del descenso del TMF es que para la misma población, de un año para otro, se necesitan más viviendas porque cada vez vivimos menos personas por vivienda.

**Conclusiones:**

Se entiende, y así se ha trabajado, que los datos de población deberían tomarse del Padrón municipal y desechar otras fuentes como el INE y el EUSTAT, para simplificar en número de las variantes.

El método que la modificación de las DOT proponen, con el periodo de análisis 1991-2006, se queda desactualizado y debería sustituirse cuando menos por la evolución que salga del periodo 2006-2011.

Para llegar a la oferta residencial, se debería primero reflexionar sobre la evolución de la población que el PGOU debe contemplar, ya que, como queda probado, ambos métodos generan un gran campo de posibilidades.

Para decidir sobre esta evolución debería considerarse, entre otras cosas, el dato de que en los últimos 17 años la edad media del municipio ha subido desde 37,21 a 43,94 años. El 20% de la población supera los 65 años. Entre 2000 y 2012 han emigrado 16.958 jóvenes entre 25 y 35 años y que han llegado de otros lugares 3.512 (con un saldo migratorio negativo de 13.446 habitantes); y que de los que se han ido, a Barrika, Berango, Erandio, Gorliz , Leioa, Plentzia, Sopelana y Urduliz son 5442 (casi un tercio del total).

Después de esta primera parte de exposición, se suceden las preguntas. Así, Dª Celina Marañón plantea la necesidad de que se oferten viviendas en alquiler. Dª Argiñe Encinas le responde que el PGOU no tiene, a su juicio, ése cometido. Y lo que se ha planteado son diversas hipótesis de necesidades de vivienda en función de dos métodos y de la evolución de la población, aunque luego informará de las alternativas que se han trabajado en el Lantalde.

También se pregunta por las viviendas vacías, que en 2013 se contabilizaban como 2.169 viviendas, más 1.341 secundarias.

Posteriormente, Dª Argiñe Encinas pasa a informar de las alternativas barajadas o trabajadas en Lantalde. No se redunda en ello en esta acta, ya que se han enviado las fichas trabajadas por los distintos grupos de trabajo.

## 2. Galde-eskeak.

Puntu hau jorratzeko denbora materialik ez dagoenez, presako gaiak soilik aipatu dira, azkar-azkar. Julen Rekondo jaunak gogorarazi du martxoaren 20an, asteazkenean, 19:00etan, bilera bat egingo dela, betiko lekuan, Foroko kideentzat eta interesa dutenentzat, HAPO idatzi duen taldeari aztertzeko planteatu ahal zaizkion balizko gaiak lantzeko.

Jarraian, eta aurreko bileran jorratu gabe geratu zen gai bati dagokionez, hau da, 2013an zaborrak gaika bildu eta ondoren birziklatzeko datuak direla eta, Josu Ateka jaunak diptiko bat banatu du, eta bertan informazio guztia azalduta dago. Keltse Eiguren andreak azaldu du komunikabide batzuek zabaldutako informazioan akats bat zegoela, 2013an 2012ko datuekin alderatuta jasotako materialen birziklatzea % 3 jaitsi zela esaten baitzen. Egia dena da % 3 jaitsi dela jasotako hondakinen kopuru osoa, eta birziklatzearen ehunekoa ia-ia 2012ko berbera izan dela. % 0,7 gutxiago besterik ez. Puntu hau zabalago jorratzeko denbora materialik ez dagoenez, puntu honetan utzi da.

Amaitzeko, Keltse Eiguren andreak adierazi du Foroak Eusko Jaurlaritzako Osasun zuzendariari bidalitako gutunaren erantzuna jaso dela. Gutun hartan, zenbait galdera egiten ziren giza kontsumoko uren fluorazioari buruz EAEn. Gutuna irakurtzea hurrengo bilerarako utzi da. Gainera, Natividad Morales andreak gaur ezin izan du etorri, eta bera izan zen Foroan giza kontsumoko uren fluorazioari eragozpen gehien jarri zizkiona eta zenbait galdera planteatu zituena.

Getxon, 21:30ean gutxi gorabehera, bilera amaitutzat jo da.

## 2. Ruegos y preguntas.

Como no hay tiempo material de abordar este punto, sólo se señalan las cuestiones más urgentes y de forma muy rápida. Así, D. Julen Rekondo recuerda que se convoca a una reunión el próximo miércoles día 20 de marzo a las 19:00 h. y en el lugar de costumbre, a las personas integrantes e interesadas del Foro para tratar posibles temas que se puedan plantear para su estudio por parte del Equipo redactor del PGOU.

Seguidamente, y sobre un tema que había quedado pendiente de la anterior reunión, relativo a los datos de recogida selectiva de residuos para su posterior reciclaje, correspondientes a 2013, D. Josu Ateka reparte un díptico donde se recoge toda la información. Dª Keltse Eiguren explica que en la información difundida por algunos medios de comunicación ha habido un error, al publicar que ha decendido en 2013 un 3% en el reciclaje de los materiales recogidos con respecto a los datos de 2012, cuando en realidad lo que descendido un 3% es en la cantidad total de residuos recogidos, y que el porcentaje de reciclaje ha sido práticamente el mismo que en 2012. Sólo un 0,7% menos. Como no hay tiempo material para tratar este punto con más amplitud, se deja en este punto.

Finalmente, Dª Keltse Eiguren informa que se ha recibido la respuesta de la directora de Salud del Gobierno Vasco, a la carta enviada por el Foro, en la que se hacían una serie de preguntas sobre la fluoración de las aguas de consumo humano en la CAPV. La lectura de la carta se deja para la siguiente reunión, en la medida también que Dña Natividad Morales no ha podido acudir en el día de hoy y fue la persona que planteó más objeciones en el Foro, a la fluoración de las aguas de consumo humano, además de diversas preguntas al respecto..

En Getxo, a las 21,30 horas pasadas se da por finalizada la reunión.